


hondakinen


1



Lehenistoria (J.A 1000-500)

Harpeetako jenteak, janari ontarrak leküan berean urtukitzen zütuen. Ondarkin horik usteltzen ziren.


2



Aitzineko menteak (J.A 550-476)

J.A 380an, Thebes-eko agintariak lehen ondarkin-biltzea antolatzen dü.


5



Pizküntea (XV-XVI.menteak)

Gorotzak eta ondarkinak karriketan edo baratzetan urtukitzen dira. Louis XII-ak eta François I-ak galtegiten düe karriken xahatzea eta zikinkeriak kanporat eramanik izanditean. 1553ko dekretü batek zikinkerien leihotik edo errekalat urtukitzea debekatzen dü.


6



XVII.mentea

Beharrüean direnak jauntsi zaharrak eta gaüza ezbardinak biltzen dütü etxeetan. Lehen birziklatzaleak dira !


9



XX.mente hatsarrean

Mente zonbaitez, higiene zinez txarra izan zen eta ondorioz hasi ziren ondarkin erretzen. Bena ohartü ziren airea kozatzen züala. 1920az geroztik, Kanadan, Estatu Batuetan eta European lehen ondarkingüneak agertzen dira.


10



1975ean

Ondarkin erretzeko lehen legea ! Lege honek dio herri bakotxak bere ondarkinak bildü behar dütüala. Halere, herri batek ardüra hori partxuergoa baten eskü pean ützen ahal dü. Hola zen sortü "Bizi Garbia".


3



Aitzineko menteak

Erroman : Erromatarrek ondarkin-ziloak plantatzen dütüe herriaren üngürüan. Laborariek belar-zühainetako ondarkinak biltzen dütüe gorotzaren egiteko


7



XIX.mentea

1870ean, Louis Pasteurek osagarria eta higienearen arteko lotüra egiten dü. 1873an, Ingalaterrako Manchester herrina, lehen erretegia joanarazten da : ondarkin erretzeko labe bat da.

4



Erdi Aroa, Frantzian (476-1453)

Jentea biltzen hasten da, herriak eraikiz. Ondarkin atetzen dira karriketan, 1350ean üzürria sortüz (25 miliu jente hil zen). Baratzte bat direnek, kabaleak hazten dütüe ondarkin desagerrarazteko.

8



XIX.mentean

1884an, Pariseko prefetak, Eugène Poubellek nahi dütü ondarkin ezarri ontzi zerratüetan. Herritarrek etxeko ondarkinak borta aitzinean ützi behar dütüe eta herriko langileek bildüko dütüe


11



1992an

Ondarkin emendatzeareki, lege berri batek herriak behartzen dütü birziklatzen ahal diren ondarkinak birziklatzera eta baloratzera. Estatiak ohartzen dira baliabide naturalak baliatü behar direla. Legeak 2002 urtean, baimenik gabeko ondarkintegiak zerratü nahi dütü.

12



Egüinko egünean

Geroago eta haboro aipatzen da ondarkine ttipitzea, erran nahi beita :
- lantegientako : Troxadüren gütitzea. Eko-diseinüa da.
- kontsumitzaileentako : Joanpideak kanbiratüz. *imo ohiturez aldatzea,*